

Gure umeentzat kontuak

Alderdi, 183. zk., 1962-07.

Aurreko beste artikulotxo batean umeeri euskera erakusteko gaia erabili nuan.

Alegia, umeak euskera ikasiko ba' du, euskeraz itz egiten entzun bear duala etxean; gero, umeak berak euskeraz erantzuten ikasi bear duala, ta orretzaz gañera umeak bere biotzeko ta imajinazioko lenengo bideak euskeraz egin bear dituala sustraizko lenengo izkuntza euskera izango ba' du.

Umearen burua arrigarri-gose dago beti, ta etxe barrunbeko mundua txikitxo zaio. Bere imajinazioko mundu zabaleko bideak ibiltzen gurasook lagundu bear diogu, bestela berez edo besteak zuzendutako bideak artuko ditu ta.

Ta gai onetzaz ari nintzala, umeentzako kontuak aitatu nituan. Nola izan bear duten umeen kontuak?

Lenen, umeen kontuak umeentzat izan bear dute. Onek azpaldiko edo prerogrullakeri bat dirudi, ez al' da ala? Bañan oiek ere esan bear ditugu bein eta berriz. Alegia, umeak berak ibiltzen dituzten itz neurrian egiñak izan bear dute kontutxo oiek; umeak ulertzen dituzten gertaerak erabilia, umeak berak esagutzen dituzten jende, abere ta gauzak bakarrik aitatu ez eta konparatuaz, eta berak bere laguntxoekin erabiltzen dituzten, berbo ta itzak bakarrik erabilliaz. Ta gañera, beti itzak berdin idatziaz. Bein *itxogin* itza erabiltzen ba' degu, gero ez *itxoin* jarri, edo *itxadon* esan; umea nastuko degu ta.

Gero, bi erako kontuak idatzi bear ditugu gutxienez: *entzutekoak* eta *irakurtzekoak*.

Bost edo sei urte arte, beintzat, umeak bere kontutxoak *entzun* egin bear ditu; ta aurrera irakurtzen ikasten duanean, umeak berak *irakurri* bear ditu. Umeei irakurriz, gurasoak euskeraz irakurtzen oituko dira; euskeldun geienak ez daude ta euskeraz irakurtzen ikasiak. Argi ibilli gaitzen emen: gaurko ta biarko munduan ez da irakurtzen ez dan izkuntzarik bizirik geratuko.

Entzuteko ta irakurtzeko onetan zer diperentzi dagon?

Entzuten ditugun gauzak ez ditugu irakurtzen ditugun bezalako neurrian ulertzen. Entzuerak denbora motxa du, ta entzuten dana irakurtzen ari danaren esku dago. *Irakurtzen* ari geranen, berriz, itz bat ulertzen ez' badegu, atzera joan geniteke, ia idea oso bat galtzen ba' degu, errenkada bat edo bost atzera joan geniteke. Bide bakoitzak bere uler-neurriak ba' ditu.

Umeak entzuteko idazten diran kontuak oso errexak izan bear dute. Batetik, itz errexak, eta bestetik, aixa ulertzeko gertaerak erabilliaz. Eta gero, frase motxak egiñaz. Onena: idea bakoitzarako frase bat. Eta idea ta itz zailtxoenak bi edo iru aldiz esan.

Umeak irakurtzeko idazten diran kontuak, berriz, pixkat bat jaso liteke; umeak irakurtzen duana ulertzen denbora artuko du ta. Bañan emen ere arreta berdiñak euki bearrean gera.

Batez ere, kontu oiekin ez degu literaturarik egin bear. Ez ta periodismorik ere. Ez ta ensaiorik ere. Umeen kontuak kontuak dira, ta umeentzat.

Umeak berak irakurri bear dutenean, begi-bideak ere erreztu bear zaizka. Letra aundia, ta orriak geiegi bete gabe bear dituzte; al'ba'da marrazki ta argazkiekin apainduta. Oraindik umearen naimen edo borondate bideak ez dira egin, ez du disziplinarik ikasi, ta bide oiek al'ditugun neurrian errextu bear dizkiogu.

Berez, euskerak ba'dauzka bere zailtasunak; bestetik, euskera ez daukagu oraindik bear-bearrezko izkuntz bezela ikastoletan; ta umeari euskera entzutea ta irakurtzea errezten asko alegindu bearrean gera.

Gure baserritarrak gari-asiari lurra lantzen dion bezela.